

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa funtziona dezan, hainbat baliabide fisikoetaz baliatuko gara; ordenagailua, bertan gure enpresaren webgunea eguneratuta eramateko eta pertsoneri gure enpresaren berri emateko; mugikorra, gurekin kolaboratu(bat egin) behar duten enpresekin kontaktuan jarri ahal izateko eta edozein zalantza argitzeko; eta hiru bulego Euskal Herriko hirietan, Donostian Bilbon eta Gazteizen, bertan gure produktuak eraikitzeko beharrezkoak diren materialak eta behin produktua bukatuta egonda, bertan gordetzeko.

Ordenagailua eta telefonoa eskuratzeko ez dugu arazo handirik izango, izan ere, gutako bakoitzak badu bere etxean gutxienez hauetako bat eta bulego bakoitzean bana izateko moldatzen gara. Beraz, baliabide hauek ez ditugu erosi beharrik izango, eta horrek gastuak asko murrizten dizkigu ondoren beste hainbat gauzetan inbertitu ahal izateko, esaterako, bulegoetan, nahitaezko materialetan, besaulkietan, etab. Bulegoak eskuratzeko ez dugu arazo handirik izango, izan ere, Maialenen aitak higiezinaren agentzi batean lan egiten du eta berak lagunduko digu bulegoak bilatzen prezio egoki batean.

Baliabide intelektualei dagokienez, gutako kide bakoitzaren zaletasunetaz eta abileziez baliatuko gara, izan ere, bakoitzak gaitasun desberdin bat dauka, baliagarria izango zaiguna gure enpresa aurrera eraman ahal izateko.

- Maialen Campos, gure kostu totalen kudeaketaz arduratuko da, izan ere, kontabilitatearen gradua ikasi du eta beraz, oso ondo moldatzen da horretarako.
- Iratxe informatika munduan nahiko ondo moldatzen denez, bera arduratuko da webguneaz eta sare sozialez, dauden nobedade guztiak txertatzeaz eta hauek eguneratzeaz arduratuko da.
- Maialen Santamaria, bere marketing abileziak baliatuz, gure bezero potentzialekin, kasu honetan garraio publikoen enpresekin, kontaktuan jarriko da eta gure zerbitzua ezagutzera emango du, geroz eta bezero gehiago lortu ahal izateko. Horrez gain, sare sozialei eta webguneari dagokionez, hainbat strategi erabiliko ditu gure zerbitzua bezeroak erakar ditzan.
- Saioak, behin beharrezkoa den materiala eskuratutakoan, neoprenoa, bera arduratuko da hau moldatzen. Horrela, *Inaza* enpresarekin aliantza egiten dugunean, prest egongo da materiala haien eserlekuetan jartzerako garaian.
- Bezeroen deiak jasoko dituen eta hauen galderak erantzungo dituen Enara

izango da, horrela bezeroen beharrak jasoko ditu eta bere sormenaren abilezia erabiliz, bezeroak gustura egon daitezzen ziurtatuko da. Horrez gain, banaketa-kanaletaz ere arduratuko da; enpresa bakoitzak nahi duen helbidera bidaliko du produktua.

Hau guztia posible izan dadin, gutako bakoitzak 1000 euro jarriko ditu, hau da, 5000 euro izango ditugu guztira. Laboral kutxari ere mailegu bat eskatuko diogu, 10.000 euroko mailegua hain zuzen.

Bestalde, enpresa nahiz bezeroekin harremana mantentzeko eta xehetasun guztiak jakinarazteko webgune bat dugu. Bertan gure zerbitzuari buruzko informazio guztia jakinaraziko zaie eta edozein zalantza edo gure enpresarekin bat egin nahi izanez gero, telefono zenbaki bat eta korreoa ere izango dira eskuragarri. Gure zerbitzua plublizitateko, ezagutzera emateko eta bezero berriak erakatzeko, berriz, instagram kontu bat dugu, @simme izeneko.

Behar izanez gero, gure senideeen bitartez eskuratuko dugun auto bat ere badugu. Bezeroek edozein zalantza izanez gero, beraiengana hurbildu gaitzke eta edozer gauza argitu.

